

Ikas- ziberkomunitateak eta irakasleen prestakuntza



04.Uzt - 05.Uzt

Kod. H07-19

Edizioa
2019

Jaduerara mota
Tailerra

Data
04.Uzt - 05.Uzt

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
20 ordu

ZUZENDARITZA

Iñaki Murua Anzola, HABE, Teknikaria

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Azalpena

Bizimodua eraldatu egin digute teknologiek; aldaketa handia eta etengabekoa da. Horren aurrean, bizitza osoan ikasteko jarrera eta konpromisoa —etengabeko ikaskuntza alegia— izan daiteke erantzuteko bide egokia. Halaber, izugarri zabaldu dute teknologiek antzeko interesak dituzten pertsonak aurkitzeko modua. Hau honela, besteekin eta besteengandik ikastea betidanik eman den gertaera bada ere, biderkatu egin dira bide horiek teknologien eta Interneten eraginez. Beste alde batetik, *komunitatea* oro har ondo baloratutako terminoa den arren, badago ikuspegi hori kolokan jartzen duenik; gainera, teknologiek ere badituzte arriskuak eta mugak.

Baina, azken finean, ezin da alde batera utzi egun komunitateek —eta, zehatzago esanda, **ikas-ziberkomunitateek**— garapen profesionalerako, prestakuntzarako eta geure burua bizitza osoan janzteko eskaintzen duten aukera. Ikas-ziberkomunitateez eta elkarrekin/elkarrengandik ikasteko esparruez hausnartzeko zein erabakiak hartzeko tartea izango dugu tailer honetan.

Helburuak

Partaideen garapen profesionalari begira ikas-ziberkomunitateak sortu eta garatzeko aukerei buruzko hausnarketa sustatzea.

Partaideen gaitasun digitalak garatzea eta hobetzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2019-07-04

09:00 - 09:15 Aurkezpena eta materiala banatzea

09:15 - 10:00 *"Egungo testuinguruari buruzko zertzelada batzuk"*

Lorea Fernández Olaskoaga EHU - -

10:00 - 11:30 *"Nire gaitasun digitalak... eta nire NIA"*

Amaia Arroyo Sagasta IKT on Hezkuntza-aholkularitza - Arduradun pedagogikoa

11:30 - 12:00 Geldiunea

12:00 - 14:00 *"Ikas-ziberkomunitateak ez dauzkagu horren urruti"*

Iñaki Murua Anzola HABE - -

2019-07-05

09:00 - 10:30 *"Sareak ehuntzeko erabili ahal diren bitartekoak"*

Amaia Arroyo Sagasta IKT on Hezkuntza-aholkularitza - Arduradun pedagogikoa

10:30 - 11:30 *"Bitartekoen AMIA analisiak erakitzen"*

Iñaki Murua Anzola HABE - -

11:30 - 12:00 Geldiunea

12:00 - 13:30 *"Ikas-ziberkomunitateak erakitzeko eta horiek irauteko aukerak eta mugak"*

Iñaki Murua Anzola HABE - -

13:30 - 14:00 Sintesia

Zuzendariak



Iñaki Murua Anzola

HABE, Teknikaria
(Donostia)

Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua eta doktorea (UNED). Helduen prestakuntzaren alorrean aritu da ibilbide profesional osoan, euskararen ikas-irakaskuntzan batez ere. Basauriko Udal Euskaltegian 10 urtez irakasle, eta hasierako urteetan zuzendari, izan ondoren, duela 23 urte hasi zen HABEn teknikari gisa, harrez geroztik zeregin desberdinetan jardun duelarik. Azkenaldi honetan, Bizkaiko lurralde-arduradun da HABEk deitutako azterketa-deialdietan; halaber, erakunde horrek plazaratzen dituen argitalpen teknikoaren koordinatzaile-editore (eHIZPIDE, Itzulpen Saila) eta Irakasbil webguneko editoreetako bat ere bada. Teknologien eta irakasleen prestakuntzaren inguruan ardaztu dira bere ikerketa eta argitalpenak; ikas-ziberkomunitateak eta partaidetza pasiboa dira gai nagusiak esparru horietan.


Irakasleak



Amaia Arroyo Sagasta

IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa
(Urretxu)

Hezkuntza Bereziko Magisteritzan diplomatua (2004), IKTak formazioan aplikatuta masterduna (2006), Komunikazio eta Hezkuntza Sarean masterduna (2012), eta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea (2017): Konpetentzia Digitala, Norbere Ikas-Alorra (NIA) eta Erakundearen Ikas-Alorra (EIA) dira bere ikerlerroak. Hainbat zereginetan ibili izan da: irakasle, aholkulari, editore, ikasmaterial-egile... baina teknologia digitalaren ikuspegi pedagogikoa da bere interesgunea, eta zeregin guztietan ardatz horri eusten saiatzen da. Gaur egun, UEUK eta EHUk eskaintzen duten HEZikt graduondokoan irakaslea eta koordinatzailea da, baita arduradun pedagogikoa berak sustatutako IKT on hezkuntza-aholkularitzan ere. horrez gain, beste unibertsitate batzuetan irakasle aritu izan da: UNIRen, Lehen Hezkuntzako Graduan, eta Antonio Nebrija Unibertsitatean, Irakasle izateko masterrean eta IKT eta ikaskuntza digitala masterrean.



Lorea Fernández Olaskoaga

(Donostia)

UPV-EHUko doktorea (2007). Pedagogian Lizentziatua eta Lehen Hezkuntzan Diplomatu (UPV-EHU). Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakaslea Didaktika Orokorra eta Hezkuntza Teknologia irakasgaietan Lehen Hezkuntzako Graduan. Extremadurako Unibertsitateak eskaintzen duen Hezkuntza Digitaleko Masterrean irakaslea da 2014-2015 ikasturtetik eta hezkuntza teknologiaren alorrean ikertzeko ikuspuntu eta metodologiekin erlacionatutako bi irakasgaietan parte hartzen du. Elkarrikertuz (IT887-16) ikerketa taldeko kidea. Red Universitaria de Tecnología Educativa sareko zuzendaria da eta REUNI+D sareko kidea. Ikerketa ildoan irakaslegoaren ikaskuntza eta ikaskuntza esperientzien elkartrukea ditu, hezkuntzaren inguruko hausnarketa eta ezagutzaren eraikitzea sustatuz, prozesu narratzaile eta digitalak erabiliz paradigma edo ikuspuntu kualitatibotik haratago.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2019-05-31 ARTE	2019-07-04 ARTE
<u>OROKORRA</u>	60,00 EUR	70,00 EUR
<u>MATRIKULA MURRIZTUA</u>	35,00 EUR	-
<u>MATRIKULA EXENTZIOA</u>	20,00 EUR	20,00 EUR
<u>ELKAR txarteldunak</u>	52,50 EUR	-
<u>AEK euskaltegiko kide</u>	52,50 EUR	-
<u>IKA Euskaltegiak</u>	52,50 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa